

Nerea Urteaga Riaño

B maila • 2 saria

Liburu berri baten usaina. Orri-markatzaile baten faltan, orria tolestean utzitako marka. Liburuaren orriak markaz eta oharrez zirriborratu. Edota liburu baten pertsonaia hain hurbil sentitu, eta harekin bat eginez, masailean behera doan malko batek orria bustitzea, agian. Irakurtzearen magia. Nerea Urteaga nauzue, Beasaingo La Salle ikastetxeko DBH 4. mailako ikasle beasaindarra. Marraztea izugarri atsegin dut, eta nabari denez, baita irakurtzea ere. Nerabezaroarekin batera datozen parrandei ezetz esatea kostatzen zaidala ere onartu beharra dut. Beste urte batez istorio guzti hauen artean nirea aurkitzeak izugarri pozten nau; horren konplikatua suertatzen den norbere buruaren ezagutzaz dihardu istorioak eta zuen gustukoa izatea espero dut.



NOIZBAIT, NOLABAIT, NONBAIT

Txirrinaren soinu karrankari eta ozenak asperralditik libratu nau. Azken ordua ekuazio sistema, problema eta ariketa artean eman dugu. Konturatu naizenerako ikasgelako arbel handia zenbakiz, balio-taulaz eta paraleloz bete du Iñakik. Irakasleari nire begirada galduak darabilkidan nahaste-borrastearen berri eman ote dion kezkaekin gelditu naiz. Nahiago nuke ekuazio horietako bat izan! Sikiera ebazteko gai izango nintzen. Mahai gaineko koaderno eta estutxea jaso eta zalapartaka ikasgelatik irten naiz, Eloiri hitza ahoan utzita. Ohartu orduko, aldapan behera, kalea hartu eta kanpoko haize freskoak on egin dit. Zeruak nire ezinegonarekin bat egin nahi izango balu bezalaxe, lehen euri tantak nire malkoekin nahastu dira, malenkonia eta tristezia agerian utziaraziz.

Igogailua hartuta dagoenez, korrika, etxeko eskailerak binaka igo ditut. Bat-batean haur nintzeneko jolasa datorkit burura eta ama, *“Nor izango da eskaileretan gora iristen lehena?”* esanez irudikatu dut.

Etxean inor ez egotea espero nuen baina giltza bi aldiz eman gabe dago. Masailak igurtzi, malkoak garbitu, kopeta-ilea alde batera orraztu eta ezpainak hortz artean estutuz etxean sartu naiz, ezer gertatu izan ez balitz bezala, nahiz eta barren-barrenean haserre eta samin nahasketak erretzen duen.

Sukalderako bidean motxila lurrera bota dut, ernegatuta. Fisikako emaitzak bai amorrua eman didana! Irakasleak begitan hartuta nauka, akats txikiena ere ez dit barkatzen. Galduta harrapatzen nauen bakoitzean, azkenaldian sarri samar gertatzen dela aitortu beharrean nago, inongo meriturik ez duen aurkikundeak puztu eta pozten duela esango nuke.

Frutaontzitik sagar bat hartu dut eta begirada paretan josita dudala, koska egin diot. Amarekin topatu baino, ez baitut nire haserrea berarekin ordaindu nahi, etxerako lanak nahiago ditut aurreratu. Ebaluazio bete-betean gaude eta arnasa hartzeko betarik ez dut. Baina egongelatik datorren ahotsak nire asmoa eten du. Harritzekoa! maren ahotsa da.

- Itxaro, musurik ez al dago niretzat?- kexati galdetu du-. Asteazkena da, bihotza, gogoratu asteazkenetan buztzingintza tailerra duzula.

Gaurko nahasmendua hain da handia, buztzingintza klasea zeharo ahaztu dudala. Ama musu handi batez agurtu ondoren, tailerrerantz abiatu naiz. Izan ere, Pello maisuaren saio hauek aspaldian buruan darabilkidan zoramenetik ihes egiteko ezinbestekoak zaizkit. Esku bustiaz buztin hotza ukitzean, estutzen nauen korapiloa astiro-astiro lasaitzen doala sentitzen dut, nahigabea arintzen baita nire barrua asaldatzen duten beldur horiek baretzen doaz. Ezintasunari aurre egiteko modua bilakatu da buztina. Isilpean gordetako komunikatzeko bidea, alegia.

Ohiko tokian eseri naiz, entzungailuak jarri eta herenegun Pello maisuak ontzat emandako maketa parean dudana apalean kokatu ondoren, lanari ekin diot. Oraingo honetan esku artean dudana itsaslami baten eskultura izango dena da. Haurtzarotik liluratu nau izaki mitologiko honen edertsasunak, kondairetako mutil gazte protagonista haiei bezala.

"Herri ikustezin hontan itzalekin jolasten/neu izaten saiatzen/geroa margozten/nire ezintasun denak/behin da berriz kantatzen/egunsentia/bide hau sentitzen..." Tornu elektrikoa martxan jarri eta buztin bolari poliki-poliki forma ematen hasi naiz, emeki baina zehaztasunez, egiten ari naizen horretan nire kontzentrazio osoa jarriz, zoritxarreko mugimendu batek pikutara bidali baitezake ordura arte egindako lana. *"Txikitatik entzuten/zer izan behar garen/indarrez inposatuz/zer maitatu behar den/baina kantatu nahi dut zapalduen olerkia/estalita duten/samin guztia..."* Musikaren ahalmen terapeutikoaz ez dut uste zalantza dagoenik, ala? Doinua... kantua... nire hatzak buztina modelatzen, bira eta bira musikaren erritmoan... lanari erabat lotuta... momentu gorena... esku batez sorbaldan jo nauten arte. Buelta eman, eskubiko entzungailua kendu eta neska mehar batek ea nire ondoko eserlekua libre dagoen galdetu dit. Nire gogaikarritasuna buztinak ustekabean xurgatu du eta neska argalak hatz potoloa gora begira jarri eta aldameneko aulkian eseri da. Ezpainean piercing bat dauka eta ezkerreko besaurrean enara saldo bat tatuatuta darama.

Tuntun baten moduan geratu naiz, neska meharraren presentzia hutsarekin uzkuertuta, nire masailak gorriarazi dituen arte, hau lotsa!

- Kaixo! Brigitte naiz, baina denek Britt deitzen didate – esan dit bat-batean.

- I-i-txa-ro naiz -totelka, nik berriz..

Pello hurbildu zaigu eta bere ahots baxuaz horrela zuzendu zaio Britt-i:

- Ezertan hasi aurretik, lehenengo ondo pentsa zer egin eta ondoren nola egin erabaki. Laguntza behar izanez gero, lasai esan, ados? Itxarok ere lagunduko dizu, artista bikaina da eta!

Britt-en begirada gozoa eustean shock egoera batean sartu naizela nabaritu dut, bihotz taupadak bizkortu zaizkit eta orduntxe jakin dut, egunen batean, bere begien urdintasunean galtzeraino iritsiko naizela. Noizbait, nolabait, nonbait zeru zabala hegaldaka zeharkatuko dudala zin egin diot neure buruari.

Britt-ek nigan eragindako lurrikara antzeman duen bakarra Eloi izan da. Txiki-txikitandik elkarrengandik oso gertu bizi izan gara, zurrumurruetatik babestu behar izateak konplize aspaldian bihurtu gintuen. Elkar begiratzearekin nahikoa dugu besteak zer duen jakiteko. Gaur, Eloik, nire sekretu barrukoena begiztatu du. Gaur, gure txikitasunean, harrotasunez agertu gara. Gaur, ikusgarri gara.

Ez dut lorik egiten. Nire aztoramenduaren arrazoi bakarra: Britt, besaurrean enara saldoa tatuatuta daraman neska meharra. Tximeletak urdailean sentiarazi dizkidana, miloika tximeleta dantzan, hegaka... Bertigoa. Nola esan? Malkoen itoaldia agerian utzi nahi eta ezin.

Isilpean bizitzen ikasi dut, aukera hoberena isiltzea zela pentsatuz hazi naiz. Sekretupean. Ezkutuan. Bakardadean. Beldurra, beldurra une oro. Baztertuta sentitzeko beldurrez, agerian gelditzeko beldurrez, desberdina izateko beldurrez. Beldurraren beldur. Baina beldurra gainditu egiten da. Hegalak eman dizkidazu Britt, eta jada hegan hasi naiz, aske, trebe, enaren moduan.